

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA BEZEROAK:

Gure enpresak eskaintzen duen produktua biztanle guztientzat bada ere, ezaugarri jakin batzuk dituzten bezero-segmentuak ditugu. Askoz udalerrri gehiago daude inguruko industriek sortzen dituzten usain gogorren eraginpean. Gure enpresarekin honako hau lortu nahi dugu: jendeak bere udalerrian aire garbia (burbuilak iragazitakoa) eta garbia izatea urteko egun guztietan. Gure enpresak bezeroentzat duen balioa sortzen duten elementuen artean honako hauek daude: berrikuntza, lehen ez zegoen premia bat betetzen dugulako, eta gure inguruan ez dagoelako horrelakorik egiten duen beste enpresarik.